

**2024KO OÑATIKO JAI NAGUSIAK ELKARLANEAN ANTOLATZEKO  
OÑATIKO UDALA ETA PAGO USO, EHIZA ETA ARRANTZA , ELKARTEAREN ARTEKO  
LANKIDETZA HITZARMENA.**

Oñatin, sinadura digitalean agertzen den datan, bi alde hauek **BATU** dira:

**Batetik, IZARO ELORZA ARREGUI** andrea, Oñatiko Udaleko alkatea, Udal korporazioaren izenean (NAN: 15396342G / Helbide Soziala: Oñatiko Foruen Enparantza 1 ).

**Bestetik, ANDONI ALTUNA URIBE** jauna, Pago Uso, Ehiza eta Arrantza Elkarteen (G20141735) izenean aritzeko gaitasuna duena (NAN:\*\*5669\*\*V / Helbide Soziala: Foruen Enparantza, 3).

Bi aldeek hitzarmen hau egiteko nahikoa gaitasun aitortu diote elkarri egintza honetan ordezkatzeko duten erakundeen izenean hitzarmen hau izenpetzeko, eta honako hau **ADIERAZTEN DUTE** :

I.- Eskumenak. Oñatiko Udalak hainbat eskumen ditu kultura-jarduera eta instalazioen arloan, indarrean dagoen legeriaren arabera, bereziki Toki-araudiaren oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 25. artikuluan eta Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legearen 17. artikuluko 20 atalean xedatutakoaren arabera.

II. Nortasun Juridikoa. Bi aldeek aitortzen dute Pago Uso, Ehiza eta Arrantza, Elkartea zuzenbide pribatuko elkartea dela, Eusko Legebiltzarrak onartutako Elkarteei buruzko ekainaren 22ko 7/2007 Legean ezarritakoaren arabera sortua, irabazteko xederik gabekoa. Era berean, aitortzen dute Pago Uso, Ehiza eta Arrantza , Elkartek ez duela inolako mendekotasunik Oñatiko Udaleko aginte organoekin, ezta lan harremanik ere.

III. Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003ko Lege Orokorra garatzeko eta 887/2006 Errege Dekretuaren 55. Artikuluak xedatutakoaren arabera; dirulaguntzak emateko ohiko prozedura lehiaketa bidez ematea izango da. Hala ere, Azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak, bere 22. artikuluan ezartzen du (22.2.c atala), salbuespen izaerarekin, zuzenean eman ahal izango direla diru-laguntzak beti ere honako arrazoiak egiaztatzen direnean: **interes**

publikoa, soziala, ekonomikoa edo humanitarioa izatea edo deialdi publikoa zailtzen duten bestelako arrazoiak.

**IV. Interes publikoa ( Azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra. 22.2. C atala ):**

Oñatiko Jaiak 2024ko markoaren baitan, Udalarekin elkarlanean, herriko Elkarteekin zein Talde antolatuen jaietako jarduera kulturalen garapena edo/eta ekitaldi zehatzak antolatzea, herriko jaietan herritar guztiek parte hartzeko aukera izan dezaten.

**V. Oñatiko Udaleko 2024rako aurrekontuetan, dirulaguntza zuzena eta izenduna aurreikusi da Pago Uso, Ehiza eta Arrantza Elkartearen alde, "San Migel eta Errosarixo jai nagusietan" kultur egitasmoak sustatzeko.**

Diruz lagunduko den kultur egitasmoa: Herri mailako plater tiraketa antolatzea eta gauzatzea.

**VI. Eskumenak.**

Oñatiko Herriko jai nagusietan Pago Uso, Ehiza eta Arrantza , Elkarteak garatuko duen jarduera —dirulaguntza honen xede direnak— Oñatiko Udalaren dirulaguntzak emateko eskumen alorraren barne daude

Oñatiko Udalak hainbat eskumen ditu kultura-jarduera eta instalazioen arloan, indarrean dagoen legeriaren arabera. Aipatzekoak dira, besteak beste, honako hauek:

- Toki-araudiaren oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 25.2.m artikulua eta Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legearen 17. artikuluko 20 atala.
- 2022-10-11ko Alkate Dekretuz onarturiko 2023-2026ko Dirulaguntzen plan estrategikoan
  - zazpigarren lerro estrategikoa: kulturaren dinamizazioa—,helburu estrategiko gisa ezarri da kultura eta jai-jardueren garapena sustatzea.

**VII. Oñatiko Udalak eta Jai nagusietan parte hartuko duten elkarte ezberdinetako ordezkariak elkarriketak izan dituzte lankidetzak sistema ezarri eta bermatzeko.**

**VIII. Aurreko guztia kontuan hartuta, lankidetzak-hitzarmen hau izenpetu da klausula hauen arabera:**

## ADIERAZPENA

Bi aldeek hitzarmen hau izenpetzea erabaki dute eta hau guztia kontuan izanda, eta alde bien onurarako izango denez, honako hitzarmen hau **HITZARTZEN DUTE**:

**LEHENA: Hitzarmenaren helburua.**

Hitzarmen honen xedea da:

.-2024ko Oñatiko Herriko jai nagusietan, Udalarekin elkarlanean, elkarteen, talde antolatuen partaidetza mantendu, suspertu eta indartzen laguntzea, jaietan herritar guztiak parte hartzeko aukera izan dezaten.

.-Oñatiko jaietan parte hartuko duten irabazi asmorik gabeko elkarteen, talde antolatuen jaietako kultur jarduerak diruz laguntzea, jaien antolakuntzan jardueren garapena edo/eta ekitaldi zehatzak burutzeak sortzen duen defizita arintzeko asmoz.

.-Dirulaguntza hau arautzea.

**BIGARRENA: Laguntzaren zenbatekoa eta kontu-saila.**

.- " 2024ko Jai Nagusietan Herri mailako plater tiraketaren" garapenaren eta egikaritzetik eratorritako gastuen finantzaketan laguntzeko helburuarekin, Oñatiko Udalak bostehun eta hogeita hamar euro (530 €) ordainduko dizkio Pago Uso, Ehiza eta Arrantza, Elkarteari dirulaguntza izendun gisa.

.-Hitzarmen honen xede den dirulaguntzetarako, kreditu egokia eta nahikoa ezarri da 2024 urteko Udal aurrekontuetan. Ordainketa 0800.481.338.03.02 2024 (5770) partidaren eta haren lotespen-mailaren barruko kredituen kontura egingo da.

**HIRUGARRENA: Hitzarmenaren iraupena.**

Hitzarmenak urte bateko (2024) iraupena izango du.

**LAUGARRENA: Dirulaguntza emateko prozedura.**

Dirulaguntza **zati bakarrean** ordainduko da: bostehun eta hogeita hamar euro ( 530€).

Diruz lagundutako jardueraren izaerari zuzenean lotutako gastuak aurkeztu beharko dira, jarduerak egiteko aurreikusitako epea amaitu baino lehen sortutakoak. (Azaroaren 17ko 38/2003 Legea).

**BOSGARRENA: Diruz lagundu daitezkeen gastuak.**

Dirulaguntza jaso dezaketen jardueren/ ekitaldien gastuak honako hauek izan daitezke:

Diruz lagunduriko jarduerarekin bat datozenak; alegia, 2024.urteko Oñatiko herriko jai nagusiekin bat datozenak, hala nola: jarduera sustatu eta hedatzeko programak, jaialdiak, folklorea, herri kirolak, ikus entzunezkoak, arte plastikoak, erakusketak eta abarrekin zerikusia dutenak eta jaietan finkaturiko epeen barruan gauzatzen direnak ( irailak 21etik urriak 8, biak barne).

Beti ere, Azaroaren 17ko 38/2003 Legeak, 22.2.C atala xedatzen duenarekin bat etorriz gero; hau da, onura publikoa edo interes soziala edo helburu publikoa duten jarduerak sustatzea edo bultzatzearekin zerikusia dutenak.

**SEIGARRENA: Likidazioa eta epea.**

Epe muga: 2024ko azaroaren 29a baino lehen aurkeztu beharko dira agiriak.

Memoria ekonomikoan, gutxienez, jarraian zerrendatzen diren agiriak aurkeztu beharko dira.

Likidazio ekonomikoak sinatua joan beharko du:

- a) Egindakoaren memoria laburra (jaietako egitaraua).
- b) Gastu-sarrerren laburpen-taula.

Horretarako, Oñatiko web orritik jaitsitako gastu-sarrerren balantze orokorreko eranskina aurkeztu beharko da.( [www.oñati.eus](http://www.oñati.eus)).

- c) Gastu guztien fakturak eta ordainagiriak.

Diruz lagunduriko jardueraren izaerarekin zuzenean loturiko gastuak aurkeztu beharko dira.

Diruz lagunduriko kantitate txikiko gastuen faktura osoak aurkezteko zailtasunak daudenean, faktura sinplifikatuak ( aurreko ticketak) onartu daitezke hauekin batera

elkartearen aitorpena aurkeztuz jarduerarekin lorturiko gastuak direla eta beti ere Fakturatzeko betebeharra arautzen duen Erregelamendua, azaroaren 30eko 1619/2102 Errege Dekretua jarraituz.

d) Programaturiko jardueren dokumentazio grafikoa (kartelak, prentsa oharrak...).

d.1. Antolaturiko jardueretan Oñatiko Udalaren dirulaguntza jaso dela adierazi beharko da. Beharrezkoa izango da Udalaren logoa azaltzea jarduerak iragartzeko prestatzen diren kartel, egitarau eta hedabide guztietan.

d.2. Hedapenean eta egiten diren komunikazio ekintzetan, hizkuntzaren eta irudien erabilera ez sexista bermatuko da, eta generoaren arabeko rol eta estereotipoen erreprodukzioa saihestuko da.

d.3. Iruditegi eta hizkeraren erabilera ez sexistaren bitartez, gizarte-balio eta harreman-eredu berdinzaleak sustatuko dira.

Horrez gain, Udalak Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorrak 38/2033 bere 30. eta 31. artikuluetan araututakoaren arabera, beharrezkoak diren dokumentuak eskatzeko aukera izango du.

#### **ZAZPIGARRENA: Elkartearen betebeharrak Udalarekiko.**

Antolatzaileak, hitzarmen honetako gainerako puntuetan adierazi eta onartutakoez gain, konpromiso hauek hartzen ditu Oñatiko Udalarekin:

6.1. Dirulaguntza itzultzea. Jasotako zenbatekoen erabateko itzulera edo itzulera partziala burutu beharko da hitzarmen honetan aurreikusitako baldintzak edo organo eskudunak ezarritako justifikazio betekizunak betetzen ez badira; bai eta dirulaguntzen Lege orokorraren 37. artikuluan eta hurrengoetan aurreikusitako kasuetan ere. Kasu honetan, dirulaguntzaren onuradunak Oñatiko Udalaren aldeko banku transferentzia bat burutu beharko du. Diru sarreran zehaztu beharko dira: diruz lagunduriko jarduera, espediente zenbakia eta onuradunaren identifikazio datuak.

6.2. Elkartea diru kontuen ikuskaritza edo auditoretza egitera behartuta balego edo/eta Udalak edo Administrazio batek hala eskatuko balio, derrigorrez jarri beharko ditu ikuskaritzaren esku (Azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 14.1c) eta f) artikulua).

6.3. Elkarreak erantzukizun osoa izango du jardueraren antolaketan eta horien garapenean gerta daitezkeen ezbehar, istripu eta bestelako gertakizunen aurrean, bai Udalarekiko eta baita

hirugarren pertsonetikiko ere, pertsona fisiko zein juridikoa izan, izaera publikoa zein pribatua izan. Elkartek antolatzen dituen jardueri dagokion erantzun zibileko aseguruia kontratatu beharko du (kapital minimoa 150.000 eurokoa izango da ), eta aseguru hori kontratatu duela egiaztatu. ( 44/2014 Dekretua, martxoaren 25ekoa).

6.4. Oñatiko Herriko jai nagusietan Elkartek antolatzen dituen jarduera guztietan istripuen prebentzioaren arloan indarrean dagoen legedia beteko du (4/1995 Legea, azaroaren 10ekoa, ikuskizun publikoak eta jolas-jarduerak arautzekoa).

6.5. Diruz lagunduko diren jarduera guztiak gauzatzeko beharrezko baimenak eskatu beharko ditu.

6.6. Elkartek emakumeen eta gizonen presentzia orekatua sustatuko du bere osaeran, bai jaien inguruan antolatzen diren ekintzetan, bai jai-programa osatzeko egiten diren kontratuetan. Jaietako jarduerak emakume eta gizonen interes eta beharretara egokitzea bilatuko da. Jai Elkartek neurriak ezarriko ditu erabaki guneeetan emakumeen edo gutxiegi ordezkaturako kolektiboen parte hartzea bermatzeko.

6.7. Euskararen Erabilera Normalizatzeko Udal Arautegiak dioena kontuan hartuta, antolatzaileak konpromiso hauek hartzen ditu bere gain hitzarmen honen baitan: Jai egitarauko jarduera guztietan, euskara erabiliko da ahoz nahiz idatziz. Auzoko Jai Elkartearen kanpoko zein barneko komunikazioetan euskara erabiltzea ziurtatuko da. Euskararekin batera gaztelania ere erabiltzen den kasuetan, euskarari emango zaio lehentasuna.

6.8. Administrazioen segurtasunerako eta elkarreragintasunerako nodoaren bidez, Oñatiko Udalak beharrezkoak diren egiaztapenak eta kontsultak egingo ditu dirulaguntzaren tramitazio administratiboa egin ahal izateko interesdunek administrazioaren esku jarritako datuei buruz. Horretaz gain, euren jarduerak Kulturaren eskumenen arloan egiten dituzten irabazi asmorik gabeko erakunde eta elkarteentzako dirulaguntzaren tramitazio administratiboa egiteko beharrezkoak diren egiaztapen guztiak ere egingo ditu. Horregatik, elkarreragingarriak izan daitezkeen datuak eskatzeari utziko zaio, baldin eta interesduna datu horiek erabiltzearen aurka agertzen bada; kasu horretan, dagozkion datuak edo dokumentuak aurkeztu beharko ditu (Urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28. artikulua).

6.9. Hitzarmen hau egiteko arrazoia den jokabideari eustea.

**ZORTZIGARRENA: Udalaren eskumena.**

Udalari dagozkio honako eskumenak:

Hitzarmena interpretatzea, hura betetzean sor daitezkeen zalantza kasuetan erabakitzea, interes publikoak eskatuta aldatzea, bertan behera uzteko akordioa hartzea eta horren ondorioz zehaztea, legez (Apirilaren 18ko, 781/1986 Erret. Dekretu legegilearen 114.artikulua) ezarritako mugen baitan eta beti ere han jasotako baldintza eta ondorioei lotuta. Hartutako erabakiek administrazio bideari amaiera emango diote eta bat-batean bihurtuko dira betearazle.

**BEDERATZIGARRENA: Hitzarmenaren haustea.**

Elkarteak hitzarmenean jasotako betebeharrak eta konpromisoak betetzen ez baditu, Udalak hitzarmena bertan behera utz dezake, eta onuradunak dirulaguntza itzuli beharko du.

Hitzarmenak izaera juridiko-administratiboa duenez, hitzarmen hau aplikatzearen ondorioz sor daitezkeen auziak administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren mende jarriko dira.

**HAMARGARRENA: Araubide juridikoa eta jurisdikzioa.**

Hau izango da legeria aplikagarria:

39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena

40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena.

38/2003 Legea, azaroaren 17koa, Diru Laguntzen Lege Orokorra.

887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa, diru laguntzei buruzko azaroaren 17koa 38/2003 Lege Orokorren Erregelamendua onartzen duena.

Oñatiko Udaleko Dirulaguntzen Ordenantza Orokorra (OB: 2009-01-29)

Oñatiko Udaleko dirulaguntzen plan estrategikoa (2022-10-11ko Dekretua)  
Administrazioarekiko auzien jurisdikzioa izango da alderdien artean ager litezkeen  
interpretazio, arazo eta egikaritze gaiak ebazteko eskuduna

Hitzarmenaren klausulak banan-banan irakurri ondoren, bi aldeek erabateko adostasuna  
adierazten dute eta agiri hau oso-osorik onartu. Eta hala jasota gera dadin, eta behar diren  
ondorioak izan ditzan, hitzarmen hau sinatzen dute.

Oñatin, sinadura digitalean agertzen den datan,

|                               |                                           |           |
|-------------------------------|-------------------------------------------|-----------|
| Oñatiko Udalaren izenean      | Pago Uso, Ehiza eta Arrantza, Elkartearen | ordezkari |
|                               | gisa,                                     |           |
| Izaro Elorza Arregi, Alkatea. | Andoni Altuna Uribe.                      |           |





| Sinaduren laburpena / Resumen de firmas |                                                                         |
|-----------------------------------------|-------------------------------------------------------------------------|
| Titulua / Título:                       | 2024ko jaiak: Oñatiko Udala eta Pago Uso Elkartearen arteko hitzarmena. |
| CSV/EKS:                                | SINAc2d53ed0-e1d9-41f2-a0f5-8a08445c1a4e                                |